

DESAGERTUTAKO
GASTEIZ

VITORIA. – Calle de Postas.



EGILE EZEZAGUNA / ARABAKO ARTXIBOA. AHPA-POS-02772

Antonio Rivera Blanco

DESAGERTUTAKO GASTEIZ

 **efadós®**

DESAGERTUTAKO GASTEIZ

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma
Lehen edizioa: 2025eko azaroa

Testuen ©: Antonio Rivera Blanco
Euskarazko itzulpenaren ©: Ibai Sarasua Garcia
Argazkien ©: hainbat egile
Bildumaren ©: Efadós argitaletxea
Edizioaren ©: Efadós argitaletxea

EFADÓS ARGITALETXEA
Edison kalea, 3 - A pabiloia
Les Torrenteres industriagunea
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonia: 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

Jatorrizko ideia eta diseinua:
Efadós argitaletxea

Lankidetzat:



Azaleko argazkia:
Egile ezezaguna / AFCEC

*Biloba Aliciari, haren belaunaldiak bere Gasteiz abegikor,
askotariko eta integratzailea eraiki dezan*

Esker-ematea:

*Ordenagailuan milaka argazki jarri dizkigutenei (PhotoAraba,
Sancho el Sabio Fundazioa...) eta haien fototeka antzeko
bidetik joatea espero dutenei (Maidar Saracíbar, Jose Flores,
Jabi Soto eta Itxiar Miñón, Guako Atal Grafiko-Fotografikokoak
AMVG). Orrialdeak gure hiriaren irudizko oroitzapenez
elikatzen dituzten jakingurei, adituei eta nostalgikoei ere bai.*

Artxiboak:

Arabako Artxiboa · PhotoAraba · Arabako Foru Aldundia
Pilar Aróstegui Udal Artxiboaren (AMVG)
Kataluniako Mendizaletasun Zentroaren
Argazki Artxiboa (AFCEC)
Kataluniako Artxibo Nazionala (ANC)
Sancho el Sabio Fundazioa (FSS)
El Correo Egunkarien Artxiboa
Trantsizio Artxiboa

ISBN: 979-13-87658-41-0
Lege-gordailua: B-19436-2025

Obra hau edozein eratan erreproduzitzeko, banatzeko,
publikoki komunikatzeko edo eraldatzeko, haren titularren
baimena behar da nahitaez, legeak ezarritako salbuespenetan
izan ezik. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu
behar baduzu, jo ezazu CEDROa (Eskubide Erreprografikoen
Espainiako Zentroa) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. or.

SARRERA

Desagertutako bi Gasteiz

12. or.

GASTEIZ HISTORIKOA

Hiri koskor herrikoi bat

128. or.

IRAULTZA OSTEKO HIRIA

Industriak modernizatutako hiria

184. or.

AURKIBIDE ALFABETIKOA

Sarrera

DESAGERTUTAKO BI GASTEIZ

Gasteizen iragan ikusezina

Egungo Gasteiz desagertutako bi hiriren gainean eraikia dago. Bata, Gasteiz historikoa, urteetan zehar eta bereziki XIX. mendean eta XX.aren lehen zatian osatua; betiko hiria, haren antzinako eta ustez betiereko ikur eta guzti. Bestea, iraultza osteko hiria, berrogeita hamarreko hamarkadaren hondarretan industrializazioa heltzean bat-batean goitik behera aldatu zena, immigrazioak ekarritako demografia-aldaketa sakona jasan zuena, izugarri handitu zena eta bere izaera aldatu zuena.

Lehenengoaren oinarritzko ezaugarriek iraun zuten, paisaiak eta tokiko idiosinkrasiak, esaterako, eta biga-

rrena, aldiz, ezkutuago utzi da, Gasteiz berriak oraindik bigarren hura izan zena izaten jarraitzen badu ere: industrialia, gainezka egindakoa eta etorkina, partez. Fabriken eta auzoen egungo hiria apenas tximiniarik eta garabirik gabe zabaltzen da, eta hirugarren sektoreari emandako hiri bat dirudi, maketa baten moduan eraikia, eta ez hirurogeiko hamarkadako pila promiskuo hartan. Langile-auzoen Gasteiz industrial hura fabrikatzailea da oraindik, baina barruti gazte berriak ditu lehengo auzo zahartuen aldamenean, eta zer aukera dakartzan eta zer funtzionaltasun duen auzitan jarri zaion zabalgunea ere bai.

Lehena gasteiztar peto-petoena da, eta bigarrena, aldiz, 1976ko martxoaren 3 hartan desafio eginez era

GURREA BELLSOLÁ TXALETAK

1953an, Gurrea Bellsolá txaletak –ezkerratarrena eta, aurretik, berastegitarrena– orduko gorabeherak islatzen zituen. Hiriko alde noblean zegoen, Manuel Iradier kalearen hasieran, eta Falangeari laga zioten José Antonio Elola etxea izan zedin, diktadura frankistan alderdi bakarraren jardueretarako erabiltzeko. Gero, hirurogeita hamarreko hamarkadan, desagertu egin zen, eta inguru hartan jauregitxo haietatik alfarotarrenak bakarrik dirau.

dramatikoa altxatu zen langile-klase industrial eta etorkinarena. Bai bata bai bestea disolbatu egin dira Gasteiz berriaren mamia osatzeko: *boomer* ileurdin asko, hazten ari diren familia gazteak, eta etorkinak, oraingoan orotariko herrialdeetatik etorriak.

Hiria gizakion asmakizunik onena da. Agerian uzten du gizakiok antolaketa-sistema konplexuak sortzeko dugun gaitasuna, eta horrexegatik erabiltzen da urbanizazioa gizartearen garapenaren adierazle gisa. Ospe txarra badute ere –betiereko Babilonia–, aurrerakuntzaren motorra eta plaza izan dira, eta askeago egin gaituzte. Hiri bat egokitze-sistema bikaina da. Haren formak aldagaitetara egokitze




EGILE EZEZAGUNA / ARABAKO ARTXIBOA: ATXA-VIC-A01-H66-F05-N1

eboluzionatu dute, eta, beraz, historia interpretatzeko koaderno ezin hobeak dira.

Horri dagokionez, Gasteiz paradigmaticoa da oso. Haren urbanismoak historiako une bakoitza islatzen du, Europako gizateriaren historia. Victor Hugok *Notre-Dame de Paris* (1831) lanean esan zuen hiriaren Erdi Aroko barrutia Nurenbergekoa –gero suntsitu zutena–, Vitrékoa eta Nordhausenekoa baino hobe zela: «Hiribildu gotiko betea, osoa, homogenea, halako gutxi dago egun». Hortxe jarraitzen du gaur ere, behe Erdi Aroan errefuxiatutako jauntxo landatarren eta merkataria aberatsen jauregiz zipriztindutako etxeen arkitektura berezi eta guzti. Hori guztia, botere zibilaren apendizek gobernatua: botere militarra eta erlijiosoa, haien dorre gotorrak eta hiriaren bilbe estua, harresi egun sumagaitzen artean giltzapetua.

Gasteizen zabalgunek (1864) dinamismo lermatu-ko hiri bat islatzen dute, probintziara mugatua, inguruko hiribilduren baten hazkundearen aldean sorgor. Dato kaleko (hasieran, Geltoki kaleko) «egongela» izan zuen elite errentadun, negoziatzaile eta milikaren boterearen bilgune. Apaizek eta militarrek, gainera, toki asko hartzen zuten.

Denboraren poderioz, hiri berria lekua hartuz joan zen, historiaren aldaketei aurre egiteko zuen gaitasunaren erakusgarri. Izan ere, xx. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera, iraultza iritsi zen, industrializazioarekin batera. Ziztu bizian desagerrarazi zituen aurreko aldiko eraikin eta espazioak, zaharkituta baitzeuden modernotzat jo arren azkar desagertu zen gustu hartarako. Beiraren eta altzairuaren sorginkeriak ondo egindako eta pentsatutako arkitektura-lanak deusezta-



BALEINO SOBRADO / AMVG-SOB-9X12-21_10



JOSÉ MARIA PARRA - / AMVG-PAR-0525_1(6)

VITORIANO PILOTALEKUA

Felicia Olabek udalerriri lursail bat eman zion, 1911n inauguratu zuten pilotalekua egin zezaten. Juan Altí izan zen nagusia, eta teilatua eta harmailak jarri zizkion. Arka kaletik sartzen zen, harik eta 1920an alde hori San Prudentziorantz zabaldu zen arte. Boxeo, borroka, saskibaloia, mitinak eta nazien aldeko omenaldiak ere ikusi ahal izan ziren han. 1979an itxi zuten.

LEHEN ETORKINAK

Irudikoak Martín Ballesteros taldeko obretako eraikuntzako langileak dira, Armentian lanean, 1947an. Halakoak izan ziren urruneko lehen etorkinak, urtegiak egitera etorriak. Haietako batzuk gelditu egin ziren, lehenbiziko bizitegi-sustapenak eta industria-pabiloiak eraikitzeko.

tu zituen. Dato, hain zuzen, horrexen adibide edo hilerri bikaina da, baita zabalguneko osoa ere, baina garai hartako kontuak dira.

Gauza bera gertatu zen fabriken iraultzak zizelkatutako fisionomiarekin. Industriaren agertoki eta monumentuak ere (fabrikak) eraldatu eta ezkutatu egin ziren, ezin bizkorrago, haietatik zuku guzti-guztiak atera ondoren. Hirurogeiko hamarkadako industria-hiria ere ezin ikus daiteke gaur egun, bost hamarkada beranduago soilik, kerik gabeko beste batek ordeztu baitu. Eta gauza bera esan daiteke erregelaz marraztutako haren auzo berriez ere, oso urrun baitaude duela mende erdi kaleak zapaltzen genituenok ezagutu genuen zalaparta hartatik.

Bigarren hori da bizi diren belaunaldien historia grafiko desagertua. Askori gure haurtzaroa edo gaztaroa gogora ekarriko duguna. Jada ez dagoena, beste bat pizteko desagerrarazi duguna, beste bat hobetzat eta au-

rreratuagotzat (eta guretzat) jotzen duguna. Liburuan horiek bakarrik ageri dira, jada ez dagoen edo jatorrizkoaz bestelako ingurune, testuinguru edo okupazioa duen horren argazkiak. Ez bilatu leku garrantzitsurik funtsean berdina badago. Hemen, Gasteiz desagertua bakarrik ikusiko eta gogoratuko duzu.

Liburu honek, gainera, irudia –eta oraingoan, argazkia– iturri historiko handia dela aldarrikatu nahi du. Jada ez dagoenaren edo jatorrian bezala ez dagoenaren argazki oro galdera eraikitzaile bat da, birpentsatzeko gonbidapen bat: gauzek gaur egungoak bezalakoak ez zirenean zer zentzu zuten eta orain aldi baterako behintzat ikusten ditugun modukoak bihurtzeko zer arrazoi dauden pentsatzeko. Liburu honetako irudiak, desagertutako bi hiri horienak, iragana bere logikatik ulertera behartzen gaituzte, estrainioa bada ere, oraindik gurea delako.



ALBERTO SCHOMMERE KOCH / ARABAKO ARTXIBOA: ATHA-SCH-PC-23269

GASTEIZ HISTORIKOA

Hiri koskor herrikoi bat

Gainerako XIX. mendeko probintzietako beste hiriburu batzuen aldean, Gasteiz ez zen oso ezberdina. Haren *hinterlanda* asetzeko ekonomia zuen, eta gero eta zerbitzu eta administrazio presenteagoak, Espainiako estatu-nazio modernoak hazi eta apurka-apurka haren kapitalismo berezia garatu ahala. Betiko Gasteiz, 1181an bataiatua, bere barruti historikoaren mugetatik gainezka egitera heldu zen XVIII. mendearen amaieran, eta XIX. mendean zabalgunek burges apal bat egin zuen. Urbanismo berriaren ertzetatik harago, herri xeheak bazterreko auzoak egin zituen, iparraldean eta hegoaldean, ordurako muino zaharrenean ez baitziren denak sartzen. Halaxe izan zen azken gerra zibilaren ostera eta berrogeita hamarreko hamarkadaren azkenetara arte.

Lau dorreko *skyline*ak iraun zuen –eta irauten du–, ordea, iraganean ainguratuta, inoiz eragin ez zioten etorkizuneko aldaketen lekuko mutu. Lehenbiziko hiri elizazale hura dinamismo urriko artisauz eta burgesez bete zen, eta, batez ere, apaizez, militarrez eta nekamez, Espainia aurremodernoaren eta protoindustrialaren sektore bereizgarri horietan oinarritu baitzuen bere jarduerak.

EZEREN AURRETIK

Hegoaldetik, 1919an, Ordu Laurdenaren pasealekua ikusten zen (Urquijo markesaren pasealekua, 1887tik; egun, Unibertsitateko ibilbidea), orotariko eraikin militar eta erlijiosoz josia, egun campusa den horretan «trenbideaz bestaldeko» inguru berezi hori osatzen zuena. Ezker-eskuin ikus ditzakegu Corazonistas eskola (1911);

Buruko Minen Etxea eta Zuloaga etxea (biak 1901ekoak); Salestarren monasterioa (1879-84); Nieves etxea (1886-88), Elurreta babes-etxe psikiatrikoa (1899-1905); Intendentzia Militarra (1902); Artilleria parkea (1886); Fournierren fabrika-etxea (1887-98); Flandriako kuartelak (1893-1902); ospitale militarra (1897), atzean López

y Compañía gerriko-belarri fabrika ezkutatzen zuena; eta zezen-plaza (1880). Makalek hiria alde guztietatik inguratzen zuten, eta lau dorreak nagusi ziren Gasteizko muinoan, Gorbeia atzean zutela. Ingurua asko aldatu da, baina oraindik honexek islatzen ditu ondoen duela mende beteko garai hartako erreferentziak.

- 1 Corazonistas eskola
- 2 Buruko Minen Etxea
- 3 Zuloaga etxea
- 4 Salestarren monasterioa
- 5 Nieves Etxea
- 6 Elurreta babes-etxe psikiatrikoa

- 7 San Pedro
- 8 San Migel
- 9 Norteko geltokia
- 10 Intendentzia Militarra
- 11 Santa Maria
- 12 San Bizente

- 13 Artilleria parkea
- 14 Fournierren fabrika-etxea
- 15 Flandriako kuartelak
- 16 Zezen-plaza
- 17 Ospitale militarra
- 18 López y Compañía gerriko-belarri fabrika

CASTAÑEIRA, ÁLVAREZ Y LEVENFELD (ED.) / ARABAKO ARTXIBOA: AHPA-POS-02791

